

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

ikastetxea:	IKASBIDEA IKASTOLA IPI	kodea:	
etapa:	DBH	zikloa/maila:	4
arloan/irakasgaia:	FILOSOFIA		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak	KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA		
irakasleak:	IRATI SAEZ DE URABAIN GARRIZ	Ikasturtea:	2022/2023

zeharkako kompetentziak

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak	ebaluazio-irizpideak
<p>1. Indibidualtasuna munduan beste indibidualtasun batzuekin batera izateko eta egoteko modutzat hartzea, eta horretan, indibidualtasunaren osaera-prozesua, ezaugarriak eta elkarrekiko erlazioak aztertzea, nor bere burua eta besteak gizartearen eta norbanakoaren arteko tentsioaren emaitza gisa hautemateko.</p> <p>2. Gaur egungo errealitate soziala aztertzea, indarrean diren interpretazio adierazgarrienak oinarri hartuta.</p> <p>3. Filosofiaren baliabide intelektual eta epistemologikoak erabiltzea, eguneroko bizitzako egoerei gogoetaren eta espiritu kritikoaren bitartez aurre egiteko.</p> <p>4. Norberaren ingurua transformatzeko prozesuak proposatzea, eta horretan, sormena eta konpromiso pertsonala oinarri hartzea, gutako</p>	<p>1. Jakintzak gizarte-eraketetan izan duen jatorria eta betetzen dituen funtzioak azaltzea.</p> <p>2. Gai izatea, bai ahoz eta bai idatziz, K.a. V. mendean gertatu zen iraultza antropologikoaz, bereziki, eta, oro har, gizakiak bere burua eta inguruan duen guztia ulertzeko interesaz gogoeta egin eta bere ideiak ganoraz argudiatzeko</p> <p>3. Nor naiz ni? galderari eman izan zaizkion erantzun ugari bere-bereak diren ekarpenak egiteko gai izatea</p> <p>4. Gaingiroki ezagutzea nortasunari buruzko zenbait teoria (G. W. Allport psikologoarena, Freud-en teoria psikoanalitikoak, teoria konduktista, teoria humanistikoak, Erik H. Erikson psikologoarena...).</p>

<p>bakoitza aldaketa sozialaren alde urratsak egin ditzakeen eragile potentziala dela ulertzeko.</p> <p>5. Filosofiaren oinarrizko auziak ezagutzea, eta Filosofiak historian zehar proposatutako galde-erantzunak erabiltzea, Filosofiak berak historian zehar eta gaur egun duen eginkizuna balioesteko.</p>	<p>5. Gizakiok izaki afektiboak garela jakitea, eta horretan, gai izatea bulkadak, emozioak eta sentimenduak bereizteko, batetik, eta gorputzak afektuak azaleratzeko duen garrantziaz jabetzeko, bestetik.</p> <p>6. Mendebaldeko gizarteetan eta, bereziki, Euskal Herrikoan indibiduazio-prozesuek gizon-emakumeon bizi-aukeren garapenean izandako funtzio eta eragina identifikatzeko gai izatea.</p> <p>7. Gai izatea bestea norberarekin espazio eta inguruabar komunak konpartitzen dituen <i>alter ego</i> gisa identifikatzeko, eta horrexek intersubjektibitatea sortzen duela jakitea.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

<p>Ikasturtean zehar, era transbersalean eduki komunei lotutako edukiak landuko dira, eta baita ikasgaiaren berariazko hainbat eduki ere: testu filosofiko bati buruzko komentarioa, garrantzizko informazioa bilatzea eta aukeratzea, entsegu bat egitea, kultura positiboki balioestea, mintzaldi bat egitea, testuak aztertzea...</p> <p>Bestelako ikasgaiaren berariazko edukiei dagokienez, honela antolatuko dira:</p> <p>I. ATALA: FILOSOFIA ETA NIA</p> <p>1. GAIA: filosofia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filosofia jakintzaren gizarte-funtzioa. Jakintzaren jatorria - Mitoa, filosofia eta zientzia - Filosofiaren biraketa antropologikoa <p>2. GAIA: ezagut ezazu zeure burua</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nia eta nortasuna. Psikologiaren ikuspegia - Indibidualizazio-prozesua. Zenbait proposamen historiko <p>II. ATALA: GIZARTEA ETA EZAGUTZA</p> <p>3. GAIA: Nia eta gizartea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Indibidualtasuna, kultura eta gizartea - Sozializazio-prozesua - Gizartearen jatorria - Erlatibismoa eta unibertsalismo kulturala <p>4. GAIA: Zer jakin dezaket</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer da arrazionaltasuna? Arrazoimena eta emozioa - Gure ezaguerak ba al du mugarik? Zer jakin dezakegu? Egiaren arazoa.

III. ATALA: ERREALITATEA ETA HONEN ERALDAKETA

5. GAIA: Errealitatea

- Zer da errealitatea? Erantzun historiko batzuk
- Unibertsoari buruzko teoriak
- Unibertsoaren helburuari buruzko teoriak
- Gizonaren eta emakumearen tokia kosmosean

6. GAIA: zer egin dezaket?

- Gizarte-aldaketaren eragileak
- Ingurunea alda dezakegu?
- Askatasuna, baldintzapena, determinismoa

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Gela antolaketa:

Ikasleen inplikazioa bermatzeko taldekatze-modu anitzak aldizkatuko dira, saio bakoitzeko proposamen didaktikoaren arabera.

Talde handia egunerokotasunean lan egiteko ohiko antolamendua izango da: azalpenak teorikoak emateko, ikus-entzunezko baliabideak ikusteko, galdera orokorrak argitzeko, ariketak zuzentzeko...

Saio bakoitzaren proposamenaren arabera, binaka edo taldeka elkartuko dira ikasleak ere; esan bezala, dinamika zehatzetarako: definizioak garatzeko, testuen ulermena lantzeko ariketak egiteko, ahozko aurkezpenak antolatu eta egiteko...

Banaka lan egin beharko dute ere ikasleek, ebaluazioari dagokionez hainbat alderdi lantzeko: hausnarketa pertsonalak, saio batzuetan proposatutako ariketa ezberdinak egiteko...

Baliabide didaktikoak:

Ikasleen parte-hartzea bermatzeko eta hauen aniztasunari erantzuteko askotariko baliabideak aldizkatuko dira: arazo egoera bidezko lanketak, ahozko azalpenak, ikus-entzunezko baliabide ezberdinak, irakurtzekoak, idatzizko apunteak Power Point aurkezpenekin osatzea, eskemak...

Aurreikusten da ere ikasleek laburmetrai ezberdinen lanketa egitea, hasieran bikoteka eta, ikasturtea aurrera joan ahala, banaka.

Azalpen teorikoak askotariko iturrietatik lortuko dira: liburu ezberdinak, web orrialdeak, dokumentalak, bideoak... Horretaz gain, "DBH4 FILOSOFIA" Ibaizabal argitaletxearen testuliburua izango da oinarria azalpen teoriko askorentzat eta baita saio batzuetako ariketa proposamentzat ere.

IKTko baliabideak:

Ikasgelako egunerokotasunari dagokionez, arbela eta arbel digitala egunero erabiliko dira, idatzizko eta irakaslearen ahozko aurkezpenetako teoria osatzeko. Aurreikusten da ere ikasleek bakoitzaren Chromebookak erabiltzea ariketa eta dinamika ezberdinetarako.

Gainera Google Classroom plataforma erabiliko da ikasleentzako euskarri gisa: bertan klase bakoitzean landutakoa ikusi ahal izango dute, banatutako fitxa guztiekin. Era berean, lan guztiak eskuz zein Classroom bidez entregatzeko aukera izango dute ikasleek.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
---	--

Ebaluazioa jarraia izango da eta proposamen ezberdinek osatuko dute. Garrantzitsua izango da ebaluaziorako atal bakoitza gaintzea ikasgaia gaintzeko. Bestela, irakaslearekin gaintzeko beharrezkoa denaren inguruko azterketa bat adostuko da.

<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazio bakoitzeko PROIEKTU edo lan bat (hausnarketa pertsonala, ahozko aurkezpena...). Hauek klaseetan landutako material ezberdinak landu eta harremantzeko izango da. • KLASEKO LANAK eta ARIKETAK: saio bakoitzean proposatzen diren ariketa ezberdinak egitea ebaluatuko da, orokorrean binaka edo hirunaka egingo direnak. • JARRERA: adi egotea, ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua, parte-hartzea, garaiz iristea, euskararen erabilera, ikasgaiarekiko interesa erakustea, materiala egunero ekartzea... 	<ul style="list-style-type: none"> • PROIEKTUA: ebaluazioko notaren %40a. • KLASEKO LANAK ETA ARIKETAK: ebaluazioko notaren %30a. • JARRERA: ebaluazioko notaren %30a.
--	--

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

Ebaluazioa jarraitua eta etengabekoa izango da, batez ere klasean astero burutu beharreko ariketekin. Gainera, ebaluazio bakoitzaren amaieran PROIEKTU edo lan bat egin beharko da, aurretik esan bezala. Lan honetan aurkeztutakoa nahikoa ez bada, ikasleek ebaluazio-saioaren aurretik zuzentzeko aukera izango dute, minimoetara iritsi ahal izateko.

Honetaz gain ebaluazioa indartzeko nahia edo beharra dutenen ikasleei ariketa osagarriak eskainiko zaizkie, falta zaizkien gaitasunen arabera. Kurtso amaieran oraindik ebaluazioren bat gaintzeko dutenek, ohiko ebaluaziorako azterketa eredu bat adostu beharko dute irakaslearekin, gaitasun minimoak eskuratu direla bermatu ahal izateko.

OHARRAK

A large, empty rectangular box with a thin black border, occupying the upper portion of the page. It is currently blank.